

AURKEZPENA



Hainbat egoera arazoitxu daudela gure gaur egungo gizartean uste dugu gure taldea. Horregatik, erabaki genuen gure proiektua gaur eguneko arazo bati buruz izango zela.

Hainbat proposamen atera genituen, baina gaur egun ikusgaitasun gehien duen gaia plastikoa eta aldaketa klimatikoa dela uste dugu.

Idea hau bururatu egin zitzaigun patioko ordu batean zakarrontzien alboan geundela. Konturatu egin ginen jendea ez zekiela nora bota haien zakarkeriak. Batzuk, alde batetik, makinetan dauden plastikoko poltsak jan eta ondoren kartoira botatzen zituzten, eta beste batzuk, bokaten eskuzapiak plastikora botatzen zituzten. Bertan, konturatu ginen jendea ez zekiela nola birziklatu eta horren ondorioz, gure mundua geroz eta kalteagotuta egongo zen.

Egoera honi konponbide bat emateko, teknologian pentsatu genuen. Gaur egun, gazte eta heldu gehienak mobil edo tablet bat dutenez, soluzio hoberena aplikazio bat diseinatzea iruditu zitzaigun. *Play Store*n bitartez, gure aplikazioa deskargatu ahal izango dute.

Aplikazioa, hainbat ataletan zatituta egongo da, zehazki hiru zatietan:

- ❑ Lehenengo, aplikazioan sartzekoan, ezinbestekoa da zure email, kokapena eta GPSa aktibatzea. Honen bitartez, zure inguruan dauden ebentuei buruz informazioa iritsiko zaizu, eta interesa pizten bazaizu, hara joateko aukera izango duzu.
- ❑ Baita, azken urte honetan, sentimenduzko bideo asko ikusi ditugu sare sozialetan. Batez ere, *Twitter*ren eta *Instagram*en gazte askok bideo hauek partekatzen zituzten haien jarraitzaileekin. Interesa piztu egin zenez erreportai moduko bideo hauek ikusteko, bideo eta argazkien atal bat egitea bururatu zaigu. Baita ere, bigarren atal honetan, ekitaldietan grabatzen ditugun gure bideo propioak txertatuko ditugu, talde honetan bideoak grabatzeko eta argazkiak ateratzeko zaletasuna baitugu.
- ❑ Bukatzeko, atal premium bat egingo dugu, hau esan nahi du ordaindu behar dela atal hau edukitzeko. Orain hainbat aplikazio daude produktuen barra-kodeak eskaneatzen dituztenak, elikagaiak onak diren edo ez esateko (yuka aplikazioa adibidez). Inspirazioa hartu dugu aplikazio horretik, eta barra-kodea eskanerretik pasatzean, azalduko da zer edukiontzira bota behar den produktuaren ontzia.

